

## 1.7. Hamargarren liburukiaren ezaugarriak

---

### 1.7.1. Liburukiaren edukia

Hamargarren liburuki honek 243 galderaren erantzunak eskaintzen ditu. Erantzun horiek lexikoari buruzko gaiak (67-79. gaiak) estaltzen dituzte:

- 67: jokoak (26 galdera)
- 68: kirolak (23 galdera);
- 69: bertuteak eta bizioak (15 galdera);
- 70: gorputzeko gabeziak (9 galdera);
- 71: larruazaleko gaitzak (16 galdera);
- 72: gaixotasunak (36 galdera);
- 73: heriotza (15 galdera);
- 74: ezkontza (18 galdera);
- 75: gizarte-bizitza (16 galdera);
- 76: ahaidegoa (26 galdera);
- 77: erlijioa (18 galdera);
- 78: sinesteak (14 galdera);
- 79: lana eta beharginak (13 galdera).

Liburukiaren bukaeran, indexak aurkitzen dira: bai mapen moldaketari dagokionena, bai erantzunei dagokionena.

### 1.7.2. Liburukiaren egitura

Mapei eta erantzunei dagokien partea galderen arabera egituratua da: galdera bakoitzari badagokio alde batetik **erantzutegi** bat ezker aldeko orrialdean agertzen dena, eta, beste aldetik, haren parean, eskuinaldeko orrialdean, mapa bat, honen gainean galderaren **izenburuak** agertzen direla, eta behean maparen **legenda** eta **ohartegia**.

Galdera bakoitzari doazkion erantzunak, herrialdeka eta inkesta-lekuka zerrendatuak dira eta alfabeto fonetikoan emanak. Haien arabera egin dute argitalpenaren molda-tzaileek interpretazio kartografiko bat mapa batean proposatzen dutena. Inkesta-leku batean bildu den erantzuna zehazki jakiteko, erantzutegira jo behar da; beraz, ez mapara.

Irakurleak ikusten duen bezala, hemengo mapen itxura ez da Euskaltzaindiak lan horietan usaian egiten dituen bezalakoak. Izan ere, Nafarroa Garaiko mugak modu berezian agertzen dira haietan eta, halaber, herri izenak ere, gaztelaniaz eta euskaraz desberdinak direnean, euskara soilean agertzeko orde, deitura ofizialetako era elebidunean ematen dira. Hastapenetik proiektu honen babesleotarik izan den Nafarroako Gobernuak 2001ean hala biziki eskaturik egin dira gauzak horrela.

### 1.7.3. Galdera-izenburuak

Galdera bakoitzari dagokion gaztelaniazko, frantsesezko eta ingelesezko forma agertzen dira galdera-izenburu gisa.

Izenburu horren azpian, galderak EHHako galde-sortan daukan zenbakia agertzen da eta, galdera bera ondoko mintzairerako hizkuntza-atlasetan ere egina izan delarik, atlas haietako galderen erreferentzia ere ematen da; adibidez, ALEANR (*Atlas lingüístico y etnográfico de Aragón, Navarra y Rioja*), ALG (*Atlas linguistique et ethnographique de la Gascogne*) edo ALE (*Atlas Linguarum Europae*).